

# EUSKAL ZIBERSEGURTASUNAREN EKOSISTEMAKO STARTUP-EK BAIKOR BEGIRATZEN DIOTE ETORKIZUNARI

Gaur egungo testuinguruan, euskal ekosistemako zibersegurtasun startup-ek berrikuntzan dihardute, beren zerbitzuak arinduz eta sendotuz sektorea indartzen laguntzeko, eta aukeraz beteriko etorkizunari aurrez aurre begira.



"Zibersegurtasuna ez da helburu diskretua, enpresa bakoitzaren jardueraren barruan sortu beharra dagoen prozesua baizik, horregatik, gure lana areagotu dugu COVID-19aren garaian gure bezeroei beren negozioien jarraitutasuna eta segurtasuna bermatzen dizkieten produktuak eskaintzeko".

## Counter Craft

"Testuinguru hau aukera bat da zibersegurtasun-tresna berriak aurkitzeko, modu egokian eta are eraginkorragoan elkarlanean aritzeko aukera ematen dutenak".



"Zibersegurtasunaren ingurumarian positibotasunez lan egitea da gakoa, edozein gertakari aurreikusi edo haren aurrean erreakzionatu ahal izateko. Handitzeko ahalmena izaten saiatzen gara une oro, enpresen segurtasun integralarekin zerikusia duten prozesu guztiak digitalizatzen".

## barbara

"Gure jarduera handitu dugu, digitalizatzeko ziberseguruaren bidez enpresei agertoki honetara egokitzen lagunduz".



"Egindako lan handiari esker, kontratuak eta lankidetzak lortu eta produktu berriak diseinatu ditugu. Izan ere, horietako bat lagungarria izango da COVID-19aren aurkako borrokan".



"Testuinguru berria beste aukera bat dela iruditzen zaigu, horregatik, geure eskaintza birbideratu dugu bezeroei telelan segurua eskaintzera, ingurune honetan beren datuak segurtasunez gorde ahal izan ditzaten".



"Egoera berri baterako agertoki berriak asmatzeari erabateko arreta ematen diogu, uneotan zibersegurtasuna eta bestelako alderdi estrategiko batzuk jorratzea aukera handia da etorkizun hurbilerako".



"Gai izan gara agertokia lehengoratzeko, geure produktua, antolakundea eta estrategia hobetuz, eta krisi hau guretzat aukera izatea lortuz, zibersegurtasuna goi-goian baitago oraintxe".



"Proiektu erakargarria dugu eta lan handia egiten ari gara enpresak etorkizunaren aurrean seguru senti daitezen".



"Ohiz kanpoko testuinguru honek erantzun irmoak eskatzen ditu eta zibersegurtasunak beteko duen rola funtsezkoa da. Hala izan dadin produktu berriak plazaratu ditugu, konexio seguru eta egiaztatutako eskaintzako beharri erantzun hobe emango diotenak".



"Denbora honetan, balizko bezeroekin egindako hileroko bilera-kopuruaren errekorra gainditu dugu".



"COVID-19ak behartu egin gaitu arreta etorkizunari eskaintzera, eta ez orainaldian funtzionatzen duena mantentzera. Hala, beti bezain indartuta aterako gara hemendik, eta inoiz baino batuago".



"Krisi hau gainditzeko bidea, hain zuzen ere, teknologia gehiago erabiltzea da. Gizarte digital ziberseguru izateko, beharrezkoak dira gaitasun eta erantzukizun digitalak dituzten herritarrek".



"Une hau ezin hobe da hausnartzeko, gure burua hobeto antolatzeko eta modu ordenatuan hazteko. Aukera hau baliatu behar dugu epe luzeko irtenbide eraginkorrak aplikatzeko, etorriko diren aldaketak aurreikusirik".



"Konpainien arrakastaren gakoa edozein egoeratan negozioko aurrera jarraitu ahal izateko hainbat agertoki diseinatzea da. Oraingo hau aukera aparta da norberaren ahulguneak aztertze eta zuzentzeko".



"Industriaren sektorea sendo dabilela erakusten ari da, eta komertzialki aurrera jarraitzen dugu, aukera berriekin. Paradigma berri honi esker gure sistemen segurtasuna hobetuko dugu".



"Gure konpainiaren arrakastaren zergatiak erraz egokitzeko gaitasuna, erabakiak arin hartzea eta berrikuntza balio diferentzial gisa hartzea dira".



"Gure segurtasun-zerbitzuek eskaintako balioak lagundu egingo du negozioko aurrera jarraitzeko, gure enpresa-ehunaren lehiakortasuna hobetzeaz gain".



"Errealitate berriak aukera asko ekarriko ditu, bai lanaren antolakuntzari bai kontziliazioaren eta inguruarekiko derrigorrezko oreakari dagokienez. Jabetu egin beharra dugu egunero ditugun zibersegurtasun-erronkak, azken batean, aldatzeko aukerak direla, gizarte gisa alferrik galdu beharko ez genituzkeenak".



"Momentu honek aukera ematen digu garapen berriak aurrera eramateko, seguruena gure bezeroekin poz handiak ekarriko dizkigutenak".



"Gure fakturazioaren zatirik handiena esportazioetatik etortzeari eta gure merkatua sektore erabakigarriki osatzeari esker, gure bezero askok jardunean jarraitzen dute eta ez gara gaur egungo egoeraren ordaina jasaten ari".




"Erabateko natibo digital eta hodeian jaio izanak azkartasuna eta egokitzeko gaitasuna ematen dizkigu, etorkizunari askoz segurtasun handiagoz aurre egin ahal izateko".



"Gaurko egoeran funtsezkoa da ziber-kultura pixka bat ezagutzea eta egunez egun atzematen diren iruzur eta arazo berri izatea. Horretarako, sakon aztertu ditugu zenbait plataformatarako eta konpainia osoaren urrutiko lana hobetzeko metodori seguruena".



"Mota honetako egoerei aurrea hartzea oinarritzkoa da etorkizunari positibotasunez begiratzeko, horregatik laguntzen diegu geure bezeroei agertoki berrira egokitzen, ingurune seguru eta efizientean".



Eusko Jaurlaritzak, SPRI Taldearen eta Zibersegurtasun Euskal Zentroaren bitartez, 4.0 industriaren teknologia berrietan oinarritutako ekimen berritzaile hoberenen garapena sustatzen du, Industria Zibersegurtasuneko laguntza-programari eta nazioarteko BIND 4.0 programari esker.